



TOKIKOM karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2010eko abenduaren 3a
288. zenbakia. 22. urtea



Hezkuntzaren haria iruten

Herritik abiatutako hezkuntza sistema nazionala eraikitzeko bidean antolatu ditu Orioko Independentistak taldeak O3ten.HSN jardunaldiak

05

Orioko kontuak
Auditoriuma

12

Kirola
Aimar Galarraga

11

Aiako berri
Ordenantza fiskalak

Erdian

Gehigarria
Festa programa



PUBLIZITATEA

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea. 20810 Orrio

azkue
karrozeria



Ubegun industrialdea, 7

20809 Aia-Orrio

Tl/fax: 943 83 51 86

Carroceriasazkue@hotmail.com

islada
estética zentroa

Sheila De Miguel - Saray Cendoya

Balearen kalea, 2 behea Orrio 20810
Tf: 943 133 856
e-maila: isladaorio@hotmail.com

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Fabrika
Agote industrialdea
Agote, 5.
20740 Zestoa

Erakusketak
San Frantzisko, 1.
20800 Zarautz
Aita Lertxundi, 21.
20810 Orrio
Tel: 943 89 49 36

Joana Murgiondo
Aseguru-agenzia

ASEGURUAUAK

C C C I

CARASA, CIVETI, LACORT Y CIA, S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

auto **azkue**

Tf: 943 13 04 38

uranga

autozertitza

**Aliprox**

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

LURDES
ARRANDEGI

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

LORETXU JATEXEA

Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KYKY **ARRI**

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO

KOLON TXIKI
atarategia
jateketa

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

Lizaso
dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tf: 943 83 07 84 Fax: 943 24 87 15

ALTXERRI

Karta eraberritua

Asteburuan, eguerdi eta gauean,
menu bereziak

943830762

ACTIVA **Akobe**

ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Juan Albizu

Abeslari, 6 - Tel/Fax: 943 83 12 49
20809 ORIO

Automóviles
ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

inbikatu berriak
eta lehenak
solga

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

Pinturak
ELKAR

pintura eta paperatze lanak
zoru leunketa

Abendako Industrialdea
943 83 08 15 / 619 60 23 35
ZARAUTZ

Bidegurutzean elkartu eta aurrera

1

Aspaldi hontan katalanistak oso indartsu dabilta, guk ez bezela hango guztiak dute botoa ta hitza. Gainditu dute aurrerantza iteko lehen baldintza, eta berriro eskuan dute erreferendum gaitza.

2

Nahiz eta beti jarduten diren soil-soilik lau probintziaz, askoz gehiago ere badira Katalan gisa biziaz. Ez ahaztu ez iparraldeaz, Balear ta Valentziaz; ea Mas ere preokupatzen den haiek duten iritziaz.

3

Bideo bat'e ibilia da munduan zehar bueltaka, guk antzekoa egite aldera hilaren 6an deu data. Hobe genuke guztiak batu halako gauzak lagata, bi herrietan askoren nahia independentzia da ta!

288

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 83 15 27
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabari

Erredakzio burua

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga,
Rosi Lazkano,
Maidor Sukia
eta Iker Uranga

Laguntzaileak

Jokin Salsamendi

Diseinua

Karkara taldea


Banatzzaileak

Oihana Genoba eta
Ane Murillo (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.100 ale

KARKARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berremán daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

GUTUNAK

Anibarko Portuko aparkalekuak

Inoiz ez naiz izan magian eta magoetan sinetsi duen pertsona, baina azkenaldian hori dudan jartzen hasia naiz, nire ingurura begiratuta. Anibarko Portuko auzoa badirudi halako sasi indar magiko batek biltzen duela; izan ere, nahiz eta bertan gero eta aparkaleku gehiago egon, harrigarria badirudi ere, aparkaleku falta dago.

Oraintsu arte hainbat eta hainbat obra egin dira auzoan bertako aparkaleku arazoak direla eta; izan ere, ia ezinezkoa izaten zen legezko leku bat aurkitzea aparkatzeko. Obra horiek amaitzean, bazirudien arazoak amaitu egingo zirela... Nik uste dut Anibarko Portuko biztanleren batek hau irakurri badu barre txiki bat atera zaiola. Horrekin guztiarekin ez dut esan nahi Udalaren lana ez dela nahikoa izan, are eta gehiago, ez diot errua inola ere Udalari leporatzen: hemengo errudun bakarrak biztanleok gara, zehaztasun gehiago ere ematera ausartuko nintzake: errudunik izendatzekotan, bertan garajea duten bizilagunak direla esango nuke. Batzuek garajea etxearekin batera erosi zuten; besteek,

Gutunerako oharrak

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

aldiz, aparte egin ziren hainbat garajee-tako bat hartu zuten, autoa bertan aparkatzeko asmoarekin, espero dut. Eskertzekoa izango litzateke, garajerik ez dugun bizilagun guztion aldetik

seguruenik, garajea duen auzolagun orok kotxea bertan aparkatzea, horrela, garajeen aparkatzeko aukerarik ez dugunok lekua aski izango genuke, eta ez genituzke autoak legez kanpo dauden lekuetan aparkatu beharko.

Azaldutakoarekin Anibarko Portuko biztanleren bat mindu badut, barkamena eskatzen diot; baina beste gauza bat ere argi utzi nahi dut: uda hasieratik bi isun ordaindu ditut kotxea behar ez den lekuan uzteagatik, eta seguru nago momentu haietako haserrea ezin dela orain zuetako inork edukiko duenarekin konparatu ere egin. ■ **Herritarra**

Akatsak zuzenduz

287. KARKARAN bada zuzendu beharreko kontu bat, gutxienez: ez-palen atalean, Jesus Lizarreta Otaegiren heriotzaren berri eman genuen. Bigarren abizena ez du hori, ordea, Oteiza baizik. Bestalde, 59 urte zituela zendu zen, eta ez 65 urterekin guk jarri bezala. Barkatu.



Auditoriuma egin ala ez erabakitzeko bidea hasi du Udalak

Udalak lehiaketa publikoa jarri du martxan, hondartza aldean kokatuko litzatekeen 2.775 metro koadroko kultur ekipamenduaren proiektua aukeratzeko

Kultur ekimen ugari hartuko lituzkeen auditorium-proiekturik onena aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du Orioko Udalak. Ondoren, proiektu hori bideragarria irudituz gero eta finantzazioa lortuz gero, eraikiko litzateke ekipamendua. Nolanahi ere, egitekotan ere, luze joko luke.

Abaromendiko zabalgunearen parez pare kokatuko litzateke kultur ekipamendua –auditoriuma barne hartuko duena–. Kultur zerbitzu horren oinarritzko eta exekuzio proiektuak idazteko laguntza teknikoa nork emango dion aukeratzeko lehiaketa da Udalak abiarazi duena.

Udalak proiektua zergatik egin nahi duen galdetuta, Jon Redondo alkateak erantzun digu kultur etxea ez dela egokia hainbat ikuskizun edo erakusketa eskaintzeko. Bestalde, erabilera anitzeko zerbait egin nahi izan dutela gehitu du, horrela probetxu handiago ateratzeko.

Urtarrilaren 10a arte jasoko dira udaltzeko idazkaritzan auditoriumari buruzko proiektuak. Horien artean onena sarituko du udal teknikari eta arkitektoekin osatutako epaimahaiak; eta lan hori aztertuko dute ondoren agintariak–bideragarritasuna, diru egoera...–, eraikin berria egin ala ez erabakitzeko. Diru iturriak lortzeko ate joka ibili beharko dute aurrena, lana finantzatzeko.

Ezaugarriak

Forma trapezoidal du auditoriumerako aurreikusten den partzelak: 70 metro luze, 28,45 metro alderik motzenez, eta 46,65 metro horren kontrako aldean; 2.775 metro koadroko azalera du guztira.

Hiru solairu –sotoa, lur mailakoa eta aurreneko pisua– izango lituzke eraikinak. Tailerrak egiteko eta entseatzeko 55 eta 125 metro koadro arteko hiru areto izango lirake sotoan.

Kongresuak, zine emanaldiak, antzerkiak... hartuko lituzkeen 500 metro koadroko auditorioarena izango da gune nagusia. Edukierari dagokionez, 250-300 lagun sartuko lirake eserita; zutik, berriaz, 1.000 inguru, tolesten diren horietakoak izango lirake eta sofak. 12 metro zabal, 12 metro hondo eta 10 metro altuerakoa izango litzateke eszenatokia.



Abaromendi kalearen aurrealdean joango litzateke auditorioa. KARKARA

Erakusketei ere tarte handia eskainiko lieke kultur gune berriak: 200 metro koadroko erakusketa areto iraunkorra izango luke eta beste 150 metro koadro interpretazio-zentro posible baterako; horrez gain, erabilera anitzeko erakusketa-aretoak ere izango lirake. Azoka eta kongresu txikiak egiteko ere balioko

Hiru solairu izango lituzke eraikinak edo eraikin multzoak eta, tartean, 500 metro koadroko auditorioa egingo litzateke

lukete azken areto horiek.

Sartu-irteeren kontrola eramateko, administrazio eta turismo bulegoa ere behe solairuan bertan jarriko lirake. Gizon-emakumeentzako aldagelak eta komunez gain, komun publikoak ere izango ditu. Bestelako zerbitzuentzako lekua ere izango du: kafetegia, taberna eta *egile-sukaldaritzako* jatetxea.

Bigarren sotoa eraiki eta aparkalekua jartzeko aukera ere mahai gainean dago.

Baldintzak

Espanian eta Euskal Herrian lanbidea legez duten herritar nahiz kanpotarrek har dezakete parte lehiaketan. Guztiek ere, 3.500.000 euroko lizitazioa izango dute muga.

Lehiaketaren nondik norako gehiago jakin nahi izanez gero, idatzi idazkari-tza@oriokoudala.com-era, www.oriokoudala.com atarian begiratu edo 943 83 03 46 telefonora dei egin.

Sariak

Proposamenak jasotzeko epea bukatuta, gehenez ere hilabeteko epea izango du epaimahaiak erabakia hartzeko, baldin eta aurkeztutako lan kopuruak uzten badu.

Sariak banatuko dira ondoren eta proiektua idazteko lana adjudikatuko zaio lehiaketaren irabazleari. 2.500 euro jasoko ditu bigarrenak; 1.500 euro hiru-garrenak; accesita eta aipamenak ere aktan jasoko dira.

Behin lehiaketa ebatzita, jendaurrean jarriko dira aurkeztutako eta onartutako lan guztiak.

Lekeitioko 33. Euskal Zineman saritu dute Sarasuaren *Hemen nago* lana

Euskaraz egin du Maialen Sarasuak film laburra, boluntario aritu diren hainbat lagun eta senitartekoekin batera. Imanol Sarasua iloba da filmeko protagonista. Zilarrezko antzarra eta 1.600 euro irabazi ditu

*Lau urterekin ez da erraza irudimena eta errealtatea bereiztea. Xalotasunaren eta krudelkeriaren arteko muga lausoa da askotan. Garrantzitsuena bizirautea da. Imanolek argi dauka hori eta horren arabera jokatzeko du. Horrela aurkezten du Maialen Sarasua oriotarrak Lekeitioko 33. Euskal Zinema eta Bideo Bilerako argumentuzko filmen ataleko lehen saria jaso duen film laburra: *Hemen nago*.*

Lau urteko haur baten –Imanol– errealtateari, umeak berak hartutako erabakiek inguruan duten eraginaz eta horiek nolabait ere kontrolatzeko duen bostereaz konturatzen hasten den garaiari, heldu dio oraingoan Sarasuak.

Euskaraz egindako 13 minutu eta 43 segundoko fikziozko film laburra da, lagun artean, aktore profesionalik gabe –protagonista Sarasua beraren iloba

da–, familiako etxean, jendearen borondateari esker eta dirurik gabe egindakoa.

Gustura dago Sarasua sariarekin: *Esfortzu handia egin eta ordainetan jasotzeko gutxi izaten da horrelako filmekin, eta sariak aurrera egiteko animoak ematen ditu.*

Hiru jaialditan

Lekeitiokoaz gain, beste bi jaialditan ere izango da *Hemen nago*: lehiaketaz kanpo aurkeztu du Sarasuak Bilboko Zinebin, eta abenduaren 7an proiektatuko da Sardiniako Babel Film lehiaketan.

Sarasuak esan digunez, harrera ona ari da izaten *Hemen nago*: *Ez da ohiko moldeko pelikula, ikuslea hausnartzera eramaten du, filmean esan eta ikusitakoari bueltak ematera. Birritan ikusteko beharra sentitzen du ikusleak. Hala esan didate, behintzat.*

Uzta oparoa

Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatu zen Maialen Sarasua Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean, 2005. urtean. Orduz geroztik, errealizadore eta editore lanetan aritu da Euskal Herriko telebista eta ekoizpen etxeetan, baina filmak zuzentzen, editatzen eta muntatzen aurkitu du bere lekua.

Lekeition bertan saritutako eta Sitgesko zinemaldian proiektatutako *14 Apostolu* (2006) filma; eta bizpahiru jaialditarako hautatutako *Uraren azalean* (2008) lana egin ditu, besteak beste.

Gaur egun, *The Last Passage* dokumentalean eta Memorial Democràtic de Catalunyaarentzako beste dokumental bat egiten dabil buru-belarri.



Lau urteko Imanol Sarasua iloba zuzendu du Maialenek *Hemen nago* filmean. MAIALEN SARASUA

LABUR

Kultura

Iñake Irastorza aktore onena

XIV. Cortada film labur lehiaketako aktore onenaren saria jaso zuen Iñake Irastorza oriotarrak azaroaren 26an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan. *Gartzela* film laburrean egindako lanarengatik saritu dute Irastorza. Elkarrekin bizitzera kondenaturik dauden bi emakumeren istorioa kontatzen da, Iban Lizarralde zuzendutako film labur horretan. Iñake Irastorzak Arantxa Gurmendi du kide bertan.

Olaxka eta Elisabeth Huegun Euskal Kantu Txapelketan

Aiako eta Orioko ordezkari bana izan ditugu aurten azaroaren 28an Donostiako Antzoki Zaharrean izandako Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketako finalean: taldeen atalean Olatz Zugastik zuzentzen duen Orioko Herri Ikastolako Olaxka taldea aritu zen, Ikastolari eta Oriori buruzko *Bizirik gaudelako* abestiarekin; eta Elisabeth Huegun aiarra, bere gitarra lagun, bakarkakoen atalean jardun zen Xabier Leteren *Habanera* abestuz. Bigarren izan zen Olaxka eta Ubegunek, aldiz, ez zuen saririk eskuratu.

Beldarrain 2. Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketan

Bigarren eta laugarren izan zen Ander Beldarrain oriotarra azaroaren 28an jokatutako Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketan. Panderoarekin eta eskusoi-nuarekin, bitara, aritu zen Ander, Edurne Errandonea eta Eider Iraola alboan zituela, hurrenez hurren. 8 bikote aritu ziren norgehiagoka eta launa pieza jo behar izan zituzten. Lan aparta egin zuten Beldarrain eta Errandoneak eta bigarren saria eskuratu zuten. Iraolarekin ere ez zen batere gaizki ibili Beldarrain eta laugarren izan ziren azkenean.



Orio Zero Zabor taldearekin harremanetan jarri nahi duenak oriozerozabor@gmail.com helbidera idaz dezake. KARKARA

Orion Zero Zabor taldea eratu da, zabor kopurua murrizteko asmoz

Gaur egungo hondakinen kudeaketaren eta erraustegiaren aurka egin, eta autokonpostatzearen eta atez ateko gaikako bilketaren alde azaldu da sortu berri den Zero Zabor taldea Orion

Duela urte eta erdi sortutako *Errausketarik* ez taldearen hariari tiraka eratu da Orion Zero Zabor taldea. Errauste plantazaborren kudeaketa sistemaren ondorio eta ez muina dela ohartuta, Zubietan eraikitzeak diren azpiegituraren kontra osatutako lehen talde hura motz geratu dela eta, elkartzea eta gaiari sustrietatik heltzea erabaki dute hainbat herritarrek.

Mundu osora zabalduta dagoen taldea da Zero Zabor. Ahal den zabor gehien birtziklatzeaz gain, ahalik eta zabor gutxien sortzea du helburu eta berrirabili, birziklatu eta berritu katea osatzea segitzien du.

Konpostatzearen aldeko kanpainak bultzatu, 5. edukiontziaekin erraustegia apaindu nahi dutela salatu, erraustegien aurkako iritziak zabaldu, eta atez atekoaren aldeko iritzia gizarteratu eta zaborra biltzeko metodo hori martxan jarriko lukeen udal taldea sortzea ditu jomugatalde berriak.

Ateztekoaren alde

Orio Zero Zabor taldeak plazaratutako datuen arabera, atez atekoari esker %80 birziklatzera iritsi dira 40.000 gipuzkoar. Hasierako beldurrak –hondakinak ustez berarekin dakartzan usaina, arratoiak...– uxatzeko ere balio izan duela gogorarazi du Zero Zabor taldeko Joseba Olidenek.

Horrez gain, bizi-kalitatea eta birziklatzeko kontzientzia areagotu izana agerian utzi dituela gogorarazi du Olidenek: *Jasotako gaien purutasuna oso altua da, %99koa; hondakin organikoko poltsak irekita ez da plastikorik agertzen; ez dago beirarik plastikoen artean... Lehen egunerako ondo ikasten ditu erabiltzaileak zereginak.*

Bestalde, zaborrik ez sortzeko bidearen zatirik malkatzen jendearen parte hartzea bermatzea dela, eta Gipuzkoan hori badaukagula dio Olatz Olariaga taldekideak; zailena eginga dagoela, alegia.

Gaurko ereduaren kontra

Gaur egungo *erabili eta bota* ereduaren kalteak azpimarratu nahi ditu Zero Zabor taldeak. Izan ere, itzulerarik gabeko eredu lineal gisa definitzen dute gaurko egoera eta iraunkortasunetik etengabe urruntzen ari dela gogorarazi nahi dute: *Baliabideak mugatuak dira, prozesuen kostu energetikoak oso altuak, gai toxiko eta kaltegarriak igortzen ditu, eta sortu eta sortzearen eraginez, kabituezinik eta gainezka dago zaborra.*

Urtetan dagoen zaborteegiaren egoera nolabait hobetzea guri ere badagokigula adierazi du, era berean, Olariagak: *Urtetaren arazoa ez da karioak uxatuta konpontzen; lur sail horrek kutsatuta jarraituko du. Kiratsa ere ikaragarria da inguruan eta inork ez du hor bizi nahi.*

Erraustegiak, gainera, egoera okertu besterik ez duela egingo esan dute Olidenek eta Olariagak. Beren hitzetan, errauste plantak botatuko gai kaltegarrien eraginez, gaixotasunak agertuko dira; aldaketa kulturala oztopatzen du; birziklatzearekin ez da ezkontzen; eta ito egiten du ekonomia.

Zero Zabor taldeko ateak edozeinentzat irekita daudela gogorarazi dute.

Ziklokrosa egingo dute Aian lehen aldiz, Orioko probaren ordezkoko

Kadete eta junior kategoriako txirrindulariak arituko dira lehen abenduaren 8an, asteazkenean eta herri erdigunea eta hilerriaren inguruak hartuko ditu ia bi kilometroko ibilbideak

Txirrindulariz beteko da Aia abenduaren 8an, asteazkenarekin; izan ere, Aia-Orioko Ziklokros Saria antolatu dute egun horretarako. Orion egin izan duten ziklokrosa ordezkatu du Aiako probak. Izan ere, orain arte ziklokrosa izan da, baina Orizarzar inguruko lurretan obrak egiten ari direnez, antolatzaileek beste toki bat aurkitu behar izan dute. *Ziklokrosa antolatzeko txirrindularientzat aproposa den toki txiki bat behar izaten da, behin proba bukatutakoan eroso aldatzeko aukera emango diena. Bestalde, epaileek ere ordenagailuekin lan egiten dutenez, horretarako egokitutako lekua izan behar du. Beraz, inguruan toki egoki bila hasi eta Aiako Udalaren laguntzaz eta ibilbidea egongo den lurren jabearekin tratua eginda, Aiara eraman dugu proba, dio Fernando Ortiz de Guinea antolatzaileak.*

Neska-mutilak lehen

Kadete kategoriako neska eta mutilak irtengo dira aurrena Aiako sarreran kokatuko duten irteera gunetik 10:30ean; eta juniorren txanda 11:30ean izango da. Herriko erdigunean eta hilerri inguruan 1.950 metroko ibilbidea moldatu dute frontoi aldameneko helmugaraino. Epaileek denbora zehatz bat emango diete txirrindulariei ibilbide horretan ibiltzeko. Txirrindulari bati buelta osoko tarte ateraz gero, lasterketatik kanpo geldituko da.

60 txirrindulari inguru espero dituzte antolatzaileek, eta kadete eta junior kategoriako neska-mutilek entrenamenduetan egiten duten ahalegina erakuste-



Oier Iraolagoitia iazko irabazlea. ZARAUZARRAK

ko eta ikusteko proba izan daitekeela uste dute.

Norgehiagoka aritu ondoren, podiumera igotzen direnek diru sariak, oroigarriak eta lore sorta bana jasoko dituzte.

Omenaldia

Baina txirrindulariak ez dira saritu eta esker ona jasoko duten bakarrak. Izan ere, Euskal Herriko Itzulia gurera gerturatzeko azken urteotan egindako ahaleginarengatik Txomin Perurena txirrindulari ohiari omenaldia egingo diote eta oroigarri bat jasoko du hark ere.

LABUR

Herri Kirolak

Euskadiko harri handietako harri-jasotze txapelketa

Aldatzen (Nafarroa Garaian) jokatu zen aurtengo harri handietako Euskadiko Harri-jasotze Txapelketa eta Aimar Irigoien Errezilgo harri-jasotzaileak bosgarren urtez erreskadan irabazi zuen txapelketa. Gure ordezkariak ez ziren gaizki ibili. Oriora ezkondu tako Joseba Ostolaza zestoarra izan zen txapeldunordea, Irigoien baino 1.425 kilo gutxiago jaso eta 9 altxaldi gutxiago eginda; eta 4.375 kiloko aldea atera zion txapeldunak txapelketa hirugarren bukatu zuen Unai Lertxundi aiarrari.

Triatloia

Euskadi irratiko Trindoorreko finalerdia larunbatean izango da

Euskadi Irratiko Hiru Erregeen Mahaia irratsaioak antolatutako Trindoor lehiaketan Orioko taldea finalerdietarako sailkatu da. Haritz Etxebeste, Eneko Santamaria eta Hossain Kaanachek osatutako taldeak bihar, larunbata, jokatu du finalaurrekoa Hernaniko taldearen aurka. Arraunean, bizikletan eta korrika gogor jardunez, abenduaren 18ko finalerako sailkatzea izango dute helburu.

EiTBren Donostiako Miramongo egoitzan izango dira probak 16:00etatik 17:00etara bitartean, eta Euskadi Irratien txapelketaren berri zuzenean entzuteko aukera edukiko dute oriotarrek.

Judoa

Xabier Urkizu Gipuzkoako txapelduna izan da

Hernanin jokatu zen senior kategoriako Gipuzkoako judo txapelketa. Oriotarrek ere hartu zuten parte txapelketan eta baita emaitza onak lortu ere. Xabier Urkizu Gipuzkoako txapeldun izan zen 81 kilotik beherakoen artean eta Ibai Peñak hirugarren postua eskuratu zuen 73 kilotik beherakoetan. Biak sailkatu dira abenduaren 12an jokatu den Euskadiko txapelketarako.

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI
Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orío (Gipuzkoa)

MASAJISTA

Kosue

Lunbalgia
Kontrakturak
Eskoliosia
Drainatze linfatikoa
Ziatika

Abeslari kalea, 4
Orío
Tf: 943 57 74 26



KARKARA

“Azken urte hauetan ahaztuta egon bada ere, goraka ari da trinketea”

Aimar Galarraga

Trinkete jokalaria

Kirol askotan ikus daiteke Aimar Galarraga oriotarra: pilotan, harria jasotzen... eta, azken lau urteotan, baita eskuz trinketean ere. Gurean modalitate horretan federatuta aritu den bakarra izan da orain arte, baina Aritz Lertxundi izango du aurten alboan

LOREBERASALUZE

Duela lau bat urte hasi zen Aimar Galarraga trinketean, laguna duen Uruguai-ko jokalaria batek Munduko Txapelketa prestatu behar zuela-eta, ez zitzan entrenamendu saioak bakarrik egin. Gustatu

eta buru-belarri sartu zen hain ezaguna ez zaigun kirol modalitate horretan.

Non hasi zinen trinketean jokatzen, inguruan ez dago frontoi egokirik eta?

Behobiara joaten ginien hasieran. Frontoi baten atzean, trinkete pribatu bat zegoen ezkutuan. Uruguai-ko lagun horrek

ezagutzen zuen jabea eta doan lagatzen ziguten jokatzen.

Bertan ere badaude trinketeak: Lasarte-Oriakoa duela hiru urte egina da, Iru-
ran eta Donostian ere badira bizpahiru.

Prestaketak utzi eta txapelketetara nola jo zenuen gero?

Gipuzkoako trinkete txapelketa bazela jakin nuen. Informazioa jaso nuen gero: banaka eta binaka jokatzen da. Han eman nuen izena, eta bertan jarraitzen dut orain ere bueltaka.

Aurreneko partida 2006ko neguan jokatzen nuen, baita lehenengo Gipuzkoako Txapelketa ere. Goizegi izan zen, agian, eta ez zitzaizkidan gauzak uste bezala irten. Jokatzerako joaten nintzen, baina...

Zer du, bada, trinketeak esku pilotak ez duena?

Frontoian ezinean ibiltzen nintzen eta trinketean, aldiz, gozatu egiten dut, errazago iristen naiz. Kontuan hartu, trinketea estuagoa dela, teilatua ere bada ezkerretara...pilota zeharka etortzen da eta jotzeko errazagoa egiten zait. Joko gehiago ematen du, gainera: sarera sartuta tantoa da, frontisaren eta ezkerreko paretaren arteko frailea -45 graduko pareta txikia- jo eta pilota nora joango den ez dakizula geratzen zara... Indar gutxiago eskatzen du eta egokiagoa da niretzat. Pilota ere arinagoa eta goxagoa da.

Lapurdin, Behe Nafarroan... asko jokatzen da trinketea. Hemen, ordea, gutxi. Iparraldean eta Frantzia daude munduko trinkete jokalaririk onenak. Asko jokatzen dute han, kirol famatua da.

Gainerakoan, kubatar bat bada ikaragarri trebea: Baltari Agusti. Trinketean aritu aurretik beisbolean jarduten zen eta postura xeble batean, albotik, josten du pilota. Hura bezalakorik ez dago. Orduko 140 kilometroko abiadurarekin ateratzen du sakea.

Gurean goraka ari da orain. Hasi nintzenean ez zen hainbeste jende ibiltzen, baina asko igo da orain, kantitateari eta kalitateari dagokionez. Lehenengo kategorian 8 bikote daude; bigarren, iaz, 12 pareja.

Zein kategoriatan aritzen zara zu?

Bigarrenengoan nago oraindik. Aurreneko pasatzeko nire kategoriako finalean sartu behar dut. Zaila dago, baina.

Aurten, gainera, Aritz Lertxundi oriotarra animatu eta harekin jokatzekeo in-tentzioa dut, parejako txapelketan. Banaka ere jokatuko dugu biok.

Eskupilotan jokatzen du Aritzek, baina otsaila arte ez dagoenez partidarik, hoztu ordez, trinketea probatuko al zuen galde egin nion. Ez nion askotan esan eta baiezkua eman zuen segituan. Jokatzekeo gogoia dauka.

Aiako berri



Ezkerrean, saritutako herritarren hiru lanak, onenarekin hasita; eskuinean, kanpokoanak. UDALA

“Aurpegiak izateak zaildu du prozesua eta parte-hartzea gutxitu”

Udalak antolatutako argazki lehiaketan aukeratutako 12 herritarren erretratuek apainduko dute 2011ko egutegia. Herritarren zein epaileen iritzia kontuan hartuta, 31 argazkietatik 6 saritu dituzte: 3 herritarrenak eta 3 kanpotarrenak.

PAT COWIE

Aurtengo argazki lehiaketa ez da betiko moduan joan, askoz ere argazki gutxiago auzetu baitira. Hala ere, urtero parte hartzen duen Ana Lasak irabazi du sari orokorra. Igor Iturain alkatearekin eta Ana Lasa berarekin hitz egin dugu lehiaketari buruz.

2008an 28 partaide eta 92 argazki, 2009an 20 partaide eta 58 argazki eta aurten 11 partaide eta 31 argazki. Zer pasa da hain gutxi izateko aurten?

Igor Iturain: Batetik, aurtengo gaia aurpegia izanda, argazkilariak baimena eskatu behar izan du erabili nahi zuenaren irudia aurkezteko, eta horrek zaildu du prozesua. Ezin izan du normalean bezain aske ibili, nahi izan zuenari argazkiak ateratzen.

Bestetik, jende askori ez zaio gustatzen bere aurpegia irudikatuta ikustea, are gutxiago etxe guztietan zintzilikatuta, herriko egutegian, eta entzun izan dut batzuek ez dutela baimenik eman horregatik, hain zuzen ere.

Zaila izaten da irabazlea aukeratzea?

II: Normalean azken hiruzpalau hoberenak ez, baina irabazle orokorra aukeratzeko detailetan sartu behar da askotan, oso garbi ez badago batek besteen aldean zer duen hobe.

“Trabazle orokorra aukeratzeko, detailetan sartu behar da askotan, oso garbi ez badago zein den hoberena”

“Justori egin nahi nion fotoa, baina ez halako pose faltsu batekin, orduan senarra jarri nuen berarekin hizketan, irudi naturalagoa lortzeko”

Ana Lasa, herritarren artean lehenengo saria irabazi duzu eta zurea aurkeztutako fotorik hoberena izendatu dute.

Poza eman al dizu jakiteak?

Ana Lasa: Bai, jakina. Lehiaketa sortu zenetik urtero hartu dut parte. Hala ere, zalantzak izan ditut aurtengo argazkiarekin, paperean ez baitzen ordenagailuaren pantailan bezain garbi gelditzen. Pentsa, paperera pasa nuen aurreneko kopia puskatu egin nuen!

Justori egin nahi nion fotoa, baina ez halako pose faltsu batekin. Orduan senarra jarri nuen berarekin hizketan, eta horrela lortu nuen irudia naturalagoa izatea. Behin egin nuen ikastaro batean esan ziguten aurpegia hartuz gero, erdi-erdian ez jartzeko, baizik eta espazio pixka bat emateko argazkiari, eta uste dut hori lortu dudala.

Hala ere, oraingoan, uste dut maila ez dela aurrekoetan bezain altua izan, orokorrean, pare bat argazki oso onak kenduta. Baina egia da aukera gutxiago ere izan dela egutegia osatzeko.

Zeintzuk ikusiko ditugu orduan 2011ko egutegian?

I.I: Herritarren argazki sarituak honako hauek dira: Ana Lasaren *Txapela Buruan eta burua...*, Sergio Cuberoren *Huellas del tiempo* eta Laurentxi Iturainen *Mari Motots*. Kanpotarren artean Ivano Peruchen *Luis Mari* izena duenak jaso du lehenengo saria, Mikel Peruchen *Ainarrak* bigarrena eta Juanjo Rivasen *Begirada urdinak* hirugarrena. Egutegia osatuko duten beste 6 argazkiak sarituen beste argazki batzuk dira, gehi Al mudena Esteberena eta Mertxe Manterolarena.

Sariak abenduaren 16an banatuko dira eta egutegia Gabonetarako iritsiko da herritarren etxeetara.



Udal probalekua erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak igo dituzte gehien. KARKARA

Datorren urterako ordenantza fiskalak aldatzea proposatu dute

Ibilgailuen zergak eta ur, zabor eta probalekuaren tasak igotzea adostu dute udalbatzarrean, eta orain jendaurrean jarri dituzte hilaren erdira arte herritarrek erreklamazioak egin ahal izateko

Azaroaren 10ean ohiko udalbatzarra izan zen udaletxean eta 2011. urterako ordenantza fiskalak behin-behinean onartu zituzten aldeko lau botorekin eta bi abstentziorekin. 2010eko ordenantzekin alderatuz, hainbat aldaketa proposatu dituzte.

Derrigorrezko zergei dagokienez, azken bi urteotan igo ez duten ibilgailuen zerga %1,8 igotzea proposatu dute. Hiri eta landa izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergetan, jarduera ekonomikoaren gainekoetan eta eraikuntza, instalazio eta obren zergetan ez da aldaketarik izango.

Tasei dagokienez, bere horretan utzi dute lurzoru publikoaren erabilerari dagozkionak, baina aldaketak proposatu dituzte zerbitzu publikoen erabilerari dagokien hainbat tasarentzat. Ur, estolderia eta finantzaketa planaren kasuan, igoera %9koa izango da. Zabor bilketa tasa %10 igoko da: hileko euro bat.

Udal probalekua erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasetan ere igoera izango da, %14,9koa, hain zuzen ere. Hala ere, tasak ezberdinak izango dira herritarrentzat eta kanpotarrentzat.

Musika eskolako tasetan ere egingo dituzte aldaketak, txikiak izan arren. Gainera, aukerak murriztu egin dira, herriko errealtatera egokituz. Instrumentu bat ikasteagatik 23 euro ordaindu behar dira hilean; bi instrumentu ikasteko 30 euro, eta dantza eskolengatik 21 euro.

Erreklamazioaldia

Datorren urterako ordenantza fiskalei, ordea, hasierako onarpena baino ez diete eman. Orain jendaurrean egongo dira ikusgai, udaletxeko idazkaritzan, hilaren erdi aldera arte, nahi izanez gero herritarrek erregistroan erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik jaso ezean, akordioa behin betikotzat joko dute eta aldaketak 2011n jarriko dira indarrean.

LABUR

Jendartea

Etxebizitza eskaerari buruzko inkesta egingo du Udalak

Udalaren helburu nagusietako bat etxebizitza arazoa konpontzea izan da eta, gaur egun ere, hala dela diote Udaletik. Hori dela-eta 2008. eta 2009. urteen artean 60 etxebizitza banatu zituzten herritarren artean, arazoari konponbidea emateko, nolabait. Orain, etorkizuneko etxebizitza eskaeren berri jaso eta erantzuna ematea iruditzen zaio egokiena Udalari. Horretarako, inkesta bat egin dute herritarren artean horiek bete eta udaletxean uzteko. Etxebizitza erosteko asmoari buruzko galderak dira inkestan erantzun beharrekoak, eta erosi nahi izatekotan noiz, nolakoa, non edota zein prezioan galdetzen da.

Erotismoa

Manex Rekartek tailerra emango du Durangoko azokan

Durangoko 45. Disko eta Liburuaren Azoka abenduaren 4tik 8ra egingo da Landako Erakustazokan eta 10:30etik 20:00era izango ditu egunero ateak zabalik. Erotismoa izango da aurtengo edizioaren gaia eta horren harira jostailu erotikoen tailerra antolatuko dute. *Erotik toys* jostailu dendako Manex Rekarte aiarak izango du tailerraren ardura. Jostailu erotikoen jatorri, ezaugarri eta erabilera erakutsiko ditu publikoaren laguntzarekin eta umore onez: sexualitatearen alderdi onuragarrienak hizpide izango dira tailer horretan. Abenduaren 6an izango da saioa, azoka barruko aretoan, 19:00etan.

Erromeria

Faboz 04 diskoaren aurkezpena izango da igandean

Aristerrazuko erromeriek martxa hartu dute eta azaroaren 28ko Elustondo anai-arreben saioaren ostean, igandean, abenduaren 5ean egingo dute hurrengo erromeria. 18:30ean hasita Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak kaleratu duen *Faboz 04* bildumako laugarren diskoa aurkeztuko dute. Diskorako grabatutako piezak eskainiko dituzte igandean Ansoberri eta Larrañaga, Lutxurdio eta Aitziber Otegi, Patxi Aiorga eta Joseba Zabalo, eta Ander eta Aintzane Agirrebeña trikitilariak. Ondoren, erromeria berezia izango da lau bikoterekin gauerdia arte. Tartean, atsedena txiki bat ere egingo dute, dantzarako indarrak berritzeko.





Aiako berri

Aiako leihoa

Nikolas Zendoia

Nola epaitu? Nola zigortu?

Badakizue iazko udan edo, Frantziakoa zela eta, txirrindulari ospetsu bat larrugorrian nola ibili zen Donostian eta han-hemenka.

Oraingo euskarakada ateetan hala esaten genuen, nudista bat zebilela txirrinduan. Horrelakoak gara.

Ez omen zen atxiloketarik. Alegia, ez zela larria. Naturala zela. Bai, naturala izango zen; baina lepotik beherakoa. Baina gizakia ere, bere osotasunean neurtu beharko litzateke. Hor zegok ba koska!

Beraz, zigor handirik jaso ez zuenez, aurtan berriro azaldu maiatz aldean. Hori duk hori, arraia. Baina oraingoan atxilotu ote duten. Urte bateko txokoa erregalatuko ote dioten...

Horrelako kontuak zabaldu ziren San Pedroak aldean. Nire galdera da, zertarako epaitu? Zigortu? Baaaaaaai horixe. Nola? Lehenengo, Donostiako kazako emakume braba horiekin hitz egin. Ondoren, Donostiako udaltzainei egun bat jai eman.

Eta kazako emakume sardinera haiek, edo barkatu, sardina frijitzen aritzen diren emakume indartsu haiek, jarri daitezela prest euren zartaginekin.

Hamar bat nahikoa lirerateke. Aurpegiak ondo estali eta, *dalefuerte* aldi on bat

Aurrekoa larrugorrian eta, atzean, Andoni Aizpuru detraje

eman diezaiotela. Ea espabilatzen den, kuloterik gabeko txirrindularia. Horrelako zigortxo bat polita izango litzateke argazki eta guzti.

Jakina, argazkiak mundu guztira zabaldu; ahal bada, txanpon batzuen truke. Baita Vatikanora ere; ez mundu guztira bakarrik.

Eta txanponik bilduko balitz, kazako emakumeentzat. Prentsan agertuko litzateke, *Por las mujeres bravas*.

Andoni Aizpuru ere ikusi genuen, telebistako erreportaje batean, Zarauzko malekoian paseatzen, txirrindu tanden bikoitz horietakoan, delako artistarekin.

Aurrekoa larrugorrian eta, atzean, Andoni Aizpuru *detraje*. Hiri zerak begiratuko zian Andoni, aurrean horrelako aingerua izan eta!



Txokoak eta jendea
Aiarak Behobia
Donostia lasterketan

Dozenatik gora aiar izan ziren hain ezaguna den karrera horretan, oso zaila da, baina, hainbeste jende batera harrapatzea argazkia ateratzeko. Ezkerretik hasita Laurentxi Iturain, Ainhoa Ubegun, Beronika Iturain, Urko Aldalur, Sergio Cubero eta Xabier Azpiazu. Zorionak eman nahi dizkiegu hauei eta baita azaltzen ez direnei ere.





KARKARA ERE MUNDIALEANIZANDA

Ezaguna izango duzuen bezala, azaroaren lehen egunetan izan zen Edorta De Anta Egokitutako Arrauneko Munduko Txapelketan, Zeelanda Berrian. Ahalegin eta esfortzu handiak eginagatik, ordea, ezin izan zuen nahi bezalako lehaketan egin eta, emaitzei erreparatuta, nahiko kopetilun etorri zen etxera kirolaria. Hala ere, ezin izango dio inork meritua kendu, nahikoa eta gehiago bada eta horrelako kategoriako txapelketa batean parte hartzea.

Norgehiagokak bukatu eta burua arraunetatik aldentuta, KARKARARI ekin zion De Antak, alboan Jokin Salsamendi eta Juan Angel Garmendia zituela, gure aldizkarian arraunlariari egindako elkarriketa irakurtzeko.

Kontuak kontu, KARKARA Zeelanda Berri-raino iritsi da aurten. Gustura joango ginen KARKARAKO langile eta karkarakideok ere!

ARGAZKIA ETA INFOR.: JUAN ANGEL GARMENDIA

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

tel/fax: 943 89 00 69
Rivalea kalea 4 - 20.800 ZARAUZ

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA BAINU ERAKUSKETA

ZAPATA KONPONKETAK

Lanagunetan: 09:00 - 13:00 eta 16:00 - 19:00
Larunbatetan: 09:00 - 13:00
Herriko enparantza, Orre

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA
Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37



Harria, herria eta irria hezkuuntzaren oinarria





Belaunaldi berriek biharko jendartea osatuko dutela, eta nazio baten etorkizuna bermatzeko hezkuntza ezinbesteko tresna dela iritzita, Orioko independentisten foroak **03ten. HSN jardunaldiak** egin ditu. Hezkuntzaren gainean ikuspegi berriak ematea eta jasotzea izan dute ardatz jardunaldiok.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: IRATI AGIRREAZALDEGI

Harria, herria eta irria; hiru kontzeptu horien inguruan aritu ziren hezkuntza ehuten. Euskal harria, oinarria, kulturaren transmisioa eta eraberritzea ardatz hartuta hiru lagunek hartu zuten hitza, bakoitzak bere harriari bueltaka. Ez Dok Hamairu mugimenduz aritu zen Benito Lertxundi kantaria. *Lo zegoela zirudien herrian Ez Dok Hamairu bat-batean gertatutako ezta-*

da izan zela esan zuen eta gaur egun ere badela, *egoera enbotatu honi astindu bat emango dion horrelako beste zerbaiten beharra*. Nabarraldeko Beñi Agirreuskaldunon ikuspuntutik Euskal Herriko historia kontatu zuen Nafarroako erresuma oinarri hartuta. Bilgune Feministako Edurne Epeldek, berriz, emakumeak hezkuntzan eta hezkidetzan egindako ekarpenak hartu zituen ahotan, besteak beste azalduz ikastetxeetan ez direla bereizi behar neskak eta mutilak, ikasleak pertsona gisa hartu behar direla.

Hizlariak jarri zituzten oinarriak, haiek bota zuten lehen harria, baina entzuleek ere hartu zuten hitza eta eman zuten iritzirik gai horien inguruan.

Hitzaldien alde serioari irri txiki bat

ateratzen ere ahaleginu ziren antolatzailleak hezkuntzaren azken helburua herritar zoriontsuak izaten laguntzea den ustean. Horretarako Porrotx pailazoak ahoan irribarrea zutela jarri zituen makina bat neska-mutiko eta guraso.

Mahainguruak

Hirugarren atalak, herriak, mahai ingurura ekarri zituen hezkuntzaren esparruko aldaketa eta plan berriak. Euskal Herriak Bere Eskolako Ainhoa Larra-bek, Hik Hasi aldizkariko Arantxa Urbek eta Joxe Mari Auzmendik eta Joxe Mari Agirretxe *Porrotxek* hezkuntza planek euskararengan duten eraginaz jardun zuten.

Baina atalaren izenak berak adieraz-



ten duen bezala, hezkuntzaren gaia herrira ekarri nahi izan zuten Orioko Independentistek eta horretarako mahaia- ren bueltan jarri zituzten herriko hezkuntza eragileak: Maria Maistra haurreskolako Maialen Ansa, Zaragueta eskolako Juanjo Zubizarreta, Danbolin musika eskolako Elena Errasti, Txurru- muskiko Beñat Solaberrieta, Ikastolako Iñaki Beraza eta Mugabeko Arritxu San Sebastian eta Lierni Etxaide.

Jon Agirresarobe *Torrotxok* hiru gal- dera egin zizkien denei eta banan-banan iritziak azalduz joan ziren guztiak.

Helburuak

Hezkuntza eragile moduan bakoitzaren helburuak zein diren argitu behar izan zuten lehenengo. Gehienek euskararen eta euskal kulturaren transmisioa aipatu zituzten helburuen artean, baina bakoit- zak bere eremuan beste hainbat jomuga ere aipatu zituen. Maialen Ansa haur- reskolen kutsu asistentziala alboratze- ko beharra azpimarratu zuen. Haurrak zaintzearen gainera, haiek heztea dute- lako helburu. Bestalde, herriaz ari zirela, ezinbestekotzat jo zuen herriko erreali- tateak eta beharrak ezagutzea eta hez- kuntzako beste eragileekin lan egitea: *Ate asko ireki daitezke ekarpenak jasoz eta emanez eta elkarlanean jardunez.*

Eskola publikoko Juanjo Zubizarre- tak, beste hainbat helbururen artean, hezkuntza komunitate gisa hartzea es- kola aipatu zuen: *Guztiei beren gaitasu- nak garatzeko aukerak eman behar zaiz- kie inor baztertu gabe; aniztasuna abe- rastasun bezala biziz.*

Musika eskolaren helburua da *musi- karekin gozaraztea ikastera hurbiltzen zaizkigun ikasleak, baita musika hori ent- zutera hurbiltzen zaizkigunak ere.*

Txurrumuski ez dela ekintza hutsetan gelditzen eta aisialdi hezitzailea eskain- tzen dutela adierazi zuen Beñat Solabe- rrietak. Gaineratu zuen saiatzen direla *haur taldeak ez daitezen gure mende egon aisialdia bideratzeko, guk lagundu arren berak badira astialdia eraikitzeke gai.*



“Herriko errealitatea eta beharrak ezagutzeak eta hezkuntzako beste eragileekin lan egiteak ate asko ireki ditzake ekarpenak jasoz eta emanez, elkarlanean jardunez”

“Eskola hezkuntza komunitate den heinen ikasle guztiei beren gaitasunak garatzeko aukera eman behar zaie inor baztertu gabe; aniztasuna aberastasun bezala biziz”

“Musika eskolaren helburua da musikarekin gozaraztea, bai ikastera hurbiltzen zaizkigun ikasleak baita musika hori entzutera hurbiltzen zaizkigun herritarrak ere”

“Ahotsa izan badugu, baina ekintza zehatzetarako, eta mahaingurutik zerbait sortuko balitz agian izan genezake hezkuntza aldetik bideratutako beste eskumenik”

“Gurasoengana ez ezik lagunengana, ikasle ohiengana... ere jotzen dugu beharra dagoenean. Hezkuntza prozesu horretan txertatuz pixkanaka haria iruten joatea da kontua”

“Gure egitarauan gai teorikoez gain, alde praktikoa dugu.

Ikasleek berentzat eta herriarentzat onuragarria den proiektu bat egiten dute ikasle gazteekin elkarlanean”



Ikastolak euskal curriculum lantzea aipatu zuen helburu gisa: *Ikastolentzako ez ezik edozein euskal herritarrentzat bali dezakeen euskal curriculum.*

Mugabeko ordezkariak azaldu zuten esperientzia eskola 50 urtetik gorako pertsonei zuzendutako proiektua izan- nik, zahartze aktiboa lortzea dela helbu- ru nagusia eta, era berean, harremanak lantzea; horretarako, batik bat, gizartean parte hartzaile aktibo sentitzeko ekin- tzak lantzen saiatzen dira.

Harremanak

Hezkuntza komunitate gisa hartuta gai- nontzeko eragileekin zein harreman zu- ten galdetu zien gero moderatzaileak mahaiko hizlariari.

Ikastetxe edo hezkuntza komunitate bakoitzak bere baitan egin ohi du antola- keta eta gehienek ekintza edo proiektu zehatzetarako baino ez dute harremanik gainontzeko hezkuntza eragileekin.

Mugabekoak dira beharbada komuni- tate izaera hori gehien baliatzen dute- nak; izan ere ikasleek berentzat ez ezik herriarentzat ere onuragarriak diren proiektuak egiten dituzte. Orioko Herri Ikastolarekin belaunaldi arteko proiektu bat egiten dute. Bestalde, Zaragueta- koekin eta eguneko zentroko adinekoe- kin proiektu bat egitekoak dira hango bi- zimodua ezagutzeko eta beste talde batekin garai bateko jolasak berreskura- tzeko lana egin nahi dute.

Ikastola guraso kooperatiba denez, gurasoen eta profesionalen arteko elkar- lana aipatu zituen Iñaki Berazak: *Harre- mana estua da oso, ez kontrolatzeko baka- rrik, baita parte hartzeko ere.* Gurasoen- gana ez ezik lagunengana, ikasle ohiengana... ere jotzen dute beharra da- goenean. *Hezkuntza prozesu horretan txertatuz pixkanaka haria iruten joatea da kontua.*

Txurrumuskikoei momentu zehatze- tan, berea bezalako erreminta baten be- harra dagoenean deitzen dietela esan zuen Beñat Solaberrietak eta horrek zer pentsatua eman diela: *Ekintza hutseta-*



rako baino ez gaituzte behar? Horren harira hausnarketa ere egin dutela esan zuen, eta ondorioztatu dutela hezkuntza eragile badira beste bide batzuk jorratu behar lituzketela, ez ekintza hutsetara mugatu. *Mahai-ingurutik zerbait sortuko balitz agian, aurrerantzean, izan genezake eskumenik interakzio puntual horiez gain. Ahotsa izan badugu, baina ekintza zehatzetarako, eta horrela izan genezake beste ahots bat hezkuntza aldetik bideratutako ahots bat.*

Musika eskolak erakunde ofizialekin ditu harremanak eta Gabonetan edo musika saioen bat behar dutenean baino ez herriko ikastetxeekin.

Juanjo Zubizarretak ere Zaragueta eskola barruko antolamenduaz jardun zuen eta eskolaz kanpoko ekintzetarako gurasoekin duen harremana aipatu. Bestalde, Ikastolaren kasuan bezala, gainontzeko eragileekin lotura askorik ez dagoela aitortu zuen eraikinaren erabilerarengatik ez bada.

Haurreskolakoak egunerokoan gurasoekin dute harremana eta herriko hezkuntza eragileekin eta Udaleko hezkuntza zinegotziarekin oso noizbehinkakoa. *Haurreskola irlatxo baten bezala dago eta, hezkuntza sistemako parte garen heinean, gainontzeko eragileekin harremana izatea beharrezkoa eta positiboa litzateke. Mahai honek elkarrekintza horretarako bide berri bat ireki lezake.*

Hezkuntza sistema

Eragileek gaur egungo hezkuntza sistemaren baitan ikusten dituzten ahulguneak eta indarguneak jarri zituzten, azkenik, mahai gainean. Horrelakoetan ohikoa den arazoak agerian utzi zituzten gehienek.

Haurreskolako Maialen Ansak egungo hezkuntza sistemak lehia bultzatzen duela esan zuen, eredu zaharkituak erabiltzen dituela, irakasle eta ikasle banaketa zurruna egiten duela, jolasari garrantzi gutxi ematen diola, hezkuntza euskaldunerako gabeziak dituela... adierazi zuen, beti ere gaineratuz badagoela



“Beste bi ordu ere hartuko nituen!”

Oso interesgarria iruditu zait Nafarroako erresumako, eta beraz, Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldia. Erraz ulertzeko eran azaldu du, gainera Beñi Agirrek. Gutxi jakinda etorri naiz eta asko ikasi dut; berria izan da niretzat. Gustura egon naiz eta beste bi ordu ere jarraituko nukeen entzuten eta hizketan. Horrelako gehiago behar dira.

Arantxa Sarasola



“Hobetzeko gogoia badago”

Bazen garaia Orion horrelako zerbait egiteko! Herri txikia izan arren, askotariko jendea etorri da. Ikusi da badagoela hezkuntzan gauzak antolatzeko eta hobetzeko gogoia. Horrelakoak sarriago egin behar lirateke.

Hezkuntza erabat matxista jaso dugu guk, baina emakumeen gaierekin nahiko kontzientziatuta gaude. Badago zer hobetua!

J.M. Olasagasti eta Koldo Olariaga



hori guztia aldatzeko aukera: *Hezkuntza sistema zurruna izan arren eskaintzen dituzirikitu batzuk gukgure geletan bestelako gauzak praktikatzeko eta pedagogo eta adituetatik jasotakoari ekarpenak aplikatzeko.*

Juanjo Zubizarretak ahulgune eta indarguneak elkarren osagarri ikusi zituen. Izan ere, etorkinek integraziorako dituzten zailtasunak traba gisa ikusi arren ikasleen aniztasuna aberastasun gisa hartu zuen; eta gauza bera teknologia berriekin, *batzuetan eskola ezin iritsi ibiltzen da, baina irakasle eta ikasleok egokitu egin behar dugu horietara.*

Musika eskolako sistemak 4 urtetik 99 urtera arteko edozeini ematen dio ikasteko aukera, esan zuen Elena Errastik; baina musika eskola guztiak bateratzen dituen proiektu bat ez izatea arazo bat dela gaineratu zuen. Bestalde, adinak adin, ikasle bat mundu profesionalera bideratzea oso zaila dela esan zuen.

Musika da aisialdi modu bat, baina aukerak hain dira zabalak aisialdi erak aukeratzeko orduan sortzen diren gatazkak ikusi zituela Beñat Solabarrietak oztopo gisara; hala ere, gatazka horiei aurre egiteko eragileek zerbait bateratua eskaintzeko interesa azaldu zuen.

Iñaki Berazak hezkuntza publiko eta pribatuaren arteko banaketa ikusten du egungo hezkuntza sistemaren arazo nagusitzat, baina arazoak alboratuta heziketa bera indargunetzat jo zuen: *hezkuntza ez da ikastetxean hasten eta ikastea bera da positiboa; zerbait ikasten denean sortzen den satisfazioa.*

Mugabekoek pertsona nagusiei zuzendutako heziketa proiektu gutxi daukela adierazi zuten, baina dauden horietan lortzen den parte hartzea benetan poztekoa dela azaldu zuten.

Hezkuntza sistema mintzagai eta baikoitzak bere helburuak jomugan. Hezkuntza ardatz eta herri bakarrean haizak eragile. Harriari batera tiraka ikasiz, guztien aurpegietan irribarre goxoa marraztea izango al da, agian, hurrengo pausoa?

Ikastola

Ura nahasia dator. Zurrumbilo urdinak ur zurietan. Korrante ezberdinak elkarren talkan. Eta zipriztinak hasi dira ur azaletik kanporatzen. Hasi da haizea bazterrak bustitzen. Kresalak gazitu du ikastolako pareta zaharra!

Gure Orioko Herri Ikastola. Dirua irabazteko asmorik ez duen guraso kooperatiba. Herritik duela 40 urte sortu zen eskola publiko ez estatala. Eusko Jaurlaritzarekin kontzertatutako hezkuntza zerbitzu publikoa ematen duen entitatea. Udalaren eraikinak erabiltzen dituen (eraikuntzaren zatia ordainduz) eta jabetzarik ez duena. Herriko haur gehienek hezitzaile eta langile gehien dituen Orioko enpresa. Euskal Curriculum, ondorioz, euskal herritar izaera, lantzen duen hezkuntza sistema duena.

1993an erabaki estrategikoa hartzera behartu zuten: Estatuaren esku geratu edo ordu arte bezala jarraitu. Orduan Udalak babesa eskaini zion bere egitura

librea manten zezan eta ez zedin sartu estatuaren sarean. Horrela erabaki zuen Ikastolak elizan egin zen bazterrean eta, ondorioz, Udalak diruz lagundu du duela gutxi arte kontserbazio eta mantenu gastuen zati handia ordainduz. Ez zuen gastu horiek ordaintzeko obligazio legalik, baina bai borondate politikoa. 2006. urtean bi erakunde horien arteko elkarlana hitzartutako dokumentu batean zehaztu zen.

Egungo alkateak hitzarmen hori hautsi zuen inongo arrazoirik eman gabe. Ondoren, hezkuntzako ordenantza berria atera zuen Udalak. Bertan herriko ikastetxeen denbora libreko aktibitateak finantzatzeko laguntzak eskaintzen dira, baina zehazki adierazten du ez direla mantenu gastuak (argia, ura, gasoila...) finantzatuko. Horrek Ikastola kaltetzen du, ze laguntza behar baitu eguneroko gastuei aurre egiteko. Gainera, aisialdiko irteerarako gastu berriak egin behar dira (gero fakturak Udalak

ordaintzen ditu) eta Ikastolak dagoeneko egina du gastua (Iberdrola...).

Nahiz eta Hezkuntza Sailetik zertxobait jaso, legalki ezerk ez dio eragozten Udalari Ikastolaren mantenurako laguntza ematea (betiere gastuen zenbateko osoa gaintzen ez bada) eta, Udalak nahi balu, posible litzateke.

Nahikoa luke *hitzarmena* berreskuratu eta sinatzea, testua legala delako.

Ikastolak adierazi du ordenantzak ez dituela bere beharrak asetzen eta *hitzarmena* berreskuratzeko sinadura bilketa hasi du. Sinatu ez duzuenoi abenduaren 8a baino lehen firmatzeko eskatzen dizuet, Udalak jakin dezan beharrezkoa dela akordioa. Pentsatu nahi dut Udala ez dela konturatu zer kalte sortzen duen bere hezkuntza-politika aldatzeak eta, egoera ikusita, berraztertuko duela. Oraindik konpondu daiteke. Ikastolak Udala behar du eta Udalak Ikastola... Ez dezagun pentsa borondate politikorik ez dagoela Ikastolari laguntzeko!



Zaragueta Eskola Orto

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

SOLOZABAL
autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk
telef: 943 83 08 12

Orioko Ogia

ORIOGI

OPIL OKINDEGIA
frontoi ondoan
Ifnoa: 943 83 01 89

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

aroztegia
MIRANDA
Jose M. Lermundi

tarima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arotz lanak
egingo dizkizugu

Urdaneta bidea, 1 »669 42 32 70« ZARAUTZ

PERTSTANAK

Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 13 29 01 Mugikorra 600 70 52 27

TANATORIO ZARAUTZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldioroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 49 37 / Faxa: 943 89 49 41
e-mail: hazrespil@hazrespil.net

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Ifnoa: 943 83 59 00

Adarretatik helduta

Rosi Lazkano. Etxekoandrea

Lehen ez zen gaurko konturik

Nire gogoeta hau idaztera ausartu naiz, artikulotxo bat idaztera gonbidatu nautelako. Egia esan, egoera honetan ez naiz askotan izan; ze askotan, sekula ere ez. Bestela ere, nire bizitzan oso lerro gutxi idatzitakoa naiz ni.

Gazte ginen garaian, kartaz harremana mantentzea ez zen oso arraroa, batez ere, mutila soldadu joana zenean. Horretan ere, suertez-edo, idatzi beharrik ez nuen izan; mutila ezagutu nuenean soldadu zegoen arren, bikote bezala hasi ginenerako bukatua zuelako soldadutza.

Geroztik gauzak bapo aldatu dira. Gaur egun, izenik ere ez dakidan hainbat gailu dago komunikatzeko, momentuan ikusteko, entzuteko, idazteko edo irakurtzeko balio dutenak, boligrafo bat hartu beharrik gabe.

Baina nire haurtzarora bueltatuz, orduan ez genuen ez telefonorik, ez autorik eta, hala ere, harremanak bagenituen familiakoekin eta auzokoekin. Etxe guztietan familia handiak eta egin behar bertsuak izaten ziren. Umeok eta ama errekarra joaten ginen ura ekartzera eta arropa garbitzera. Auzokoek ere hala egiten zuten eta laster aditzen zen marmita hotsa –auzokoarena edo haiek gurea–.



Beraz, errekan denok elkartzen ginen. Gauza bera gertatzen zen esne partitzera joaterakoan. Orduan ere bateratsu ibiltzen ginen, beraz, auzotarron arteko hartu emana egunerokoa zen. Gizonak ere elkartu ohi ziren perratokira joaten zirenean eta baserri guztietan tolaera edo errota ez zeudenez, haiek izaten zituzten biltoki. Auzolana ere ezagutu nuen; eguraldi txarra zen egunetan herri bideak konpontzera joaten ziren auzotarrak.

Baserri giroan kanpaia bera ere komunikatzeko tresna baliotsua izan ohi zen. Goizero egunsentian jotzen zuten guk matutia deitzen genion kanpaia; eguerdiko hamabietan angelusa, geunden tokian geundela erreztatzen genuena; eta iluntze partean berriz jotzen zuten kanpaia eta gure amak sukaldeko leihatilak ixten zituen orduan. Igandetan mezatarako bi abisu eta sarrerakoa izaten ziren; pazkotan, aleluia; eta auzoko festen bezperan seroreak gazteoi, sokatik tiraka, kanpaia jotzen uzten zigun eta txandan-txandan jarduten genuen. Garai batean, larrialdi, sute, heriotza eta horrelakoen berri ere kanpaiaren bitartez zabaltzen zen auzoan.

Ezagutu nuen, baita ere, gure etxeko leihoan maindire edo zapi zuria jartzen zutenekoa, auzoko baten bati zerbait adierazteko, nahiz eta orain ipuinak diruditen. Ganadua gaixo edo ume egiteko zenean, gizonak mendira joaten zirenean etxera aguro bueltatzeko, edo auzotarrei egun batetik besterako abisuak emateko zapia izan ohi zen seinalea. Hala ere, ondo pentsatzen hasita, orain ere hortxe segitzen dute kanpaiek pozak eta penak zabaltzen eta balkoietan zapiak zer esanik ez, neronek ere badaukat zapi zuri bat etxean zintzilik.

Idazteari buruz, berriz, urtero saiatzen naiz etxekoei eta lagunei urteurrenetan edo Gabonetan gorosti marrazki edo laxo koloretsua duten postalak bertsoaren batekin edo bidaltzen. Ze aurrerapenek ez gaituzte ezertan mututu beharrik paper eta boligrafoz bakarrik defendatzen garenok. Bide batez, eskerrik asko aukera honengatik.

Gazte ginen garaitik gauzak bapo aldatu dira. Gaur egun, izenik ere ez dakidan hainbat gailu dago komunikatzeko, momentuan ikusteko, entzuteko, idazteko edo irakurtzeko balio dutenak, boligrafo bat hartu beharrik gabe

Nire honetan
Pat Cowie

Isileko mezu esanguratsua

Matxismoa, kristalezko sabaia, diskriminazio isila... Asper-asper eginda nago, bai horrelakoak nonahi daudelako, zein behin eta berriro horretaz hitz egin behar izaten dugulako.

Nire dirua kudeatzen duen sukurtsalean ere aspertu egin naiz aurrean dudanak noiz bukatuko zain, eta hasi naiz inguruan zintzilikatuta dauden irudiei erreparatzen.

Bezeroa oraindik bere horretan dabilela ikusita, pixkanaka-pixkanaka begiek buelta osoa eman diote sukurtsalari eta hau ikusi dut zintzilikatuta dituzten irudietan: 12 gizona eta emakumezko bakar batena dirudien begia. Parekotasuna? Zer ikusi, hori ikasi? Alferrikako hitzak ote? Irudien arteko proportzioa bezain esanguratsua dela esango nuke nik.

Mezu isilaren aurrean gu ere isilik? Ez horixe! Mezu desorekatu eta okerre aurre egin behar diegu, esanez gezurra dela, gure mundua ez dela irudi horien bidez isilpean bidaltzen digutena. Eta, baita ere, gure dirua kudeatzen duen banketxeko zuzendariari —emakumezkoa, alajaina!— esan onartezina dela, eta zentraleko gizon eta emakumeen arteko parekotasuna ondo islatzen duen publizitate duina bidaltzeko esateko, mesedez!

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01- 656 78 29 99

IKUSI
aurtengo arropa kolektzioa
eta bideoa


ardatzaboutique.com

ARDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./ Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

PUBLIZITATEA

egin zure
publizitatea
gurean



WEB
DISEINU
PROGRAMAZIOA
JON CERCEO OTAÑO

TEL: 691-31-22-40

Goizeko
KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 behea · ORIO
Autobus parada ondoan

ARKAITZ
Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarieko mundialak

ABESLARI KALEA,4 Telf: 943 83 16 57

edariategia
ANTILLA
jaletegia

Abeslari Kalea, 2 - Tel. 943 83 23 00

AMILIBIA
ONTZIALAK, S. L.

kirol portuetan proiektu
eta instalazioak

goi mailako lehiaketarako
arraun-ontziak

Olasoagaegia auzoa, 52
34 943 83 08 29
faxa 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Gabon
TABERNA
plater konbinatuak eta pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 09

Igo zaitetz haize berrietara!

Galeria I

943890416 - 677149934
galernaTorio@hotmail.com

RAMIRO
argazkiak
ezkontza erreportajeak
600 eurotik gora

943 83 10 48 /
610 697 668
www.fotoramiro.com

TRANSPORTE FRIGORIFIKOA

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olasoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

HAIZE BERRI
taberna-jaletegia-kafetegia

Plater konbinatuak,
bokatak,
hanburgesak,
razioak,
eguneko menua...

eta etxora eramateko zerbitzua!

Ordea kalea, Orreaga 1 48 943 83 13 13 (Aita's goberna'tze)

URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TXORROKAK - BAIKULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
Eusko
Enpresen
ER-044370

ISO 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

Gaia emanda Galarazi behar al da erretzea tabernan?

Datorren urtearen hasieran indarrean sartuko den tabakoaren lege berriak debekatu egingo du edozein tabernatan erretzea. **Horren alde zaude ala kontra?**

Erretzaileak aterperik gabe

Barrari trapua pasatzen ari naizela, neska bat dator taberna barrura eta, nire artean, *baietz honek ere betiko galdera egin eta danba! tabakorik baduzue?* Nik, betiko erantzuna eman diot: *Kalakariko eskailerak jatsi eta hortxe aurkituko duzu makina.* Urtarriletik aurrera makinak botako du faltan tabako makina. Neronek ere bai, erretzaileak izaki. Erretzaileek tabakoa erretzen badute, lege horrek erreko ditu erretzaileak. Aterpe erretzailerik gabe geratuko da edo erretzaileak dira aterperik gabe geratuko direnak.

2006tik hainbat kafetegik erretzea galarazi zuten; 100 m² baino gehiago zituzten jatetxe askok erretzaileentzako gelak prestatu, eta 100 m² azpikoek erretzea galarazi edo baimendu zuten. 2010eko urtarrilaren 2tik aurrera ostalariok lokal barruan erretzea galarazi beharko dugu eta erretzaileak garenok kanpora irten beharko dugu. Afari eder bat egin ostean, mahaietan hautsontzirik ez! Ezta Monte-

Ohiturak aldatu beharko ditugu erretzeko; saltzeko ez dituzte aldatuko agintariek

cristo, Cohiba, Farias edo tabako paketerik ere. Erretzaile batentzat ez dago kafe edo koparik zigarro edo pururik gabe. Gainera, inork tabernan zigarro bat piztuz gero itzaltzera behartuta gaude, barra barrukoarekin nahiko lan ez eta kanpoko zaindu behar! Kostako zaigu egoera berriari aurre egitea eta, askotan, inor kalera botatzea egokituko zaigu, isunak ostalarientzat izango direla egia bada. Hainbat negoziotan galarazi zuten erretzea 2006an,

ZIA

baina denbora pasa ahala, erretzea debekatutako hainbat jatetxe eta kafetegik berriro lehen-gora bueltatu dira, bezeroen falta sumatuta.

Urtarrilaren 2an neronek taberna batera sartu eta nahi gabe zigarro bat piztuko dudalakoan nago, eta kanpora bidaliko naute edo itzali egin beharko dut, nik eginarazi beharko dudana moduan eta gogorra egiten zait hori pentsatzea. Ohiturak aldatu beharko ditugu erretzeko, baina berek ez dituzte aldatuko saltzeko.

Aterpeko barrari trapua pasatzen ari naizela sekulako frenazo hotsa. Danba! Beste furgoneta bat zubi azpian kabitu ezinda. Txikizioa. Gurpil erre usaia. Gidaria ere erre. Zigarroa balitz bezala txikitu zaio autoa. Zenbatgarren zigarroa? *Beste erretzaile bat aterperik gabe.* Iritsiko al da leku horretan gurpilak erretzea galaraziko duen legea!

Maidar Sukia

Tabernaria

Fariasaren kearen etorria

Traganeko pasadizo txiki bati egingo diot ba bisita, hara, tabakoaren legearen inguruko baliza honi ziaboga ematen hasteko. Datorkigun legearen aurka dagoen irakurleari arrazoi edo argumentu txolin zein eskasa irudituko zaion arren, nire konbentzimendurako, behintzat, aski izan zen bizi-pen txiki hura.

Gogoratzen naiz nire urtebetetze egunean izan zela. Australian genbiltzan, aste hartan, dozena erdi euskaldun batera, eta ospatze-ko zerbait egite aldera, afari ostean *Surfer's Paradise* delako zementuzko labirinto handira gerturatu ginen (surflariantzako paradisu bezala izena bakarrik du lekuak, baina beno, horren inguruan jardungo gara beste kapitulu batean). Gau guztian dantzaleku batetik bestera galduta ibili eta gero, datorren egunean ajeak egin zigun kuku denoi. Eta, hara, gutako bakoitza bart gaueko kamiseta be-

BOGA

rarekin ginela ohartu ginen, pixkanaka koltxoi edo ohetzat har genitzakeen esponja moduko haietatik jaikitzean. Gure herrian kirats festa ederra zitekeena han ez zen, ordea, zergatik? Tabernetan erretzerik ez dagoelako, hortxe arrazoi sinplea. Denok harrituta, parrandan erabilitako arropak hurrengo egunean nazkarik ematen ez zizula eta.

Australian bizi izandako esperientzia hori eta beste batzuk kontuan hartuta, tabakoaren legea onuragarri izango delakoan nago; erretzea galaraztea ondo dago, egoskorrek sortuko dituzten liskararak arazo handiagoa bihurtzen ez diren heinean, txo... Eta tabernan zigarroari heltzea galarazita, ohiko bihurtuko ote da albokoaren gerriari goxo-goxo eustea, hainbeste urteren ostean aske geratuko den eskuarekin? Ziur horrek lagunduko ligukeela euskaldunoi, ondotox irabazia dugun fama horri aurka egiten!

P. D. Igande goiza. Egurdiko 12 eta erdiak. Tabernan zurito bat eta egunkaria aurrerean. 4. pisuko bizilaguna sartu da *fariasa* martxan duela, eta osorik irentsi duzu. 15:30. Siestan dago bizilaguna, eta zuk gitarra elektrikoa martxan jarri duzu, *fariasaren* keak kolokatuta oraindik, abesti berri baterako inspirazioa etorri zaizulako. Horra gaia, *Torrotxo!*

Iñigo Galton

Musika irakaslea

Eta tabernan zigarroari heltzea galarazita, ohiko bihurtuko ote da albokoaren gerriari goxo-goxo eustea, hainbeste urteren ostean aske geratu den eskuarekin?



Mimo handiz zaindu du Baranzano gitarra-jotzaile eta irakaslearen zuzeneko diskoa ausArt records-ek. KARKARA

Sorterrira itzultzean, musika da bidea

Kritika Montevideora itzultzen

Eduardo Baranzano, ausArt records, gitarra, 2010ko abendua

Gitarrako piezatxoek osatzen dute aukeratu dugun ausArt records etxeko diskoa, Montevideon 2003an zuzenean egindako grabazioetik ateratakoak. Oso kalitate handiko grabazioak dira eta edizioa bera ere ez da atzera geratzen, dotorea eta zaindua baita. Montevideon, han jaioa da Eduardo Baranzano eta *pa'l que se va* diskoaren azpititulua kongi adierazten du,

etxea utzi eta erbestera bizitzera joan zela orain dela urte asko. Euskal Herrian, gure artean egin du kabia, Aian, *-en un pueblecito muy cerca de España...* berak dioen bezala eta Donostiako Musika kontserbatorioan da irakasle.

Gitarra jotzaile aparta da Baranzano eta horixe bada diskoaren balioetako bat, gure ustez, aurkezten den piezen aukeraketa zaindu eta ederra litzateke bestea. Artistaren bizitzako joan-etorrien lekuko diren Amerika eta Europa, bi kontinenteetako lanak jasotzen ditu eta badaude Bach, Mozart edo Debussy bezalako maisu handienak tartean, baina kutsu herri-

koa gustukoa duten musikagileenak dira gehienak, ozeanoaren bi aldeetako leku eta jendeen kantu eta dantzen usaina dutenak. Ez du euskal folklore ahaztu eta aita Donostiaren *Oñasez* hautatu du harako eta honako ibilbidea osatzeko. Zaila bada ere aukeratzera, bereziki gustatu zaigu Myers britainiarren *Cavatina* eta Falú kubatarraren *Que lo diga el río*.

Gertutasuna eta emozioa darie guztiei Baranzanoren interpretazio neurtuan eta sentikorrean: benetako kutxa magikoa bihurtzen da gitarra Eduardoren eskuetan.

ANA GONZALEZ DE TXABARRI

Ikasleak idazle
Iker Uranga

PSP, nire laguna

PSPa bideojokoekin jolasteko erabiltzen dugun traste bat da.

PSParekin oso ondo jolastu daiteke, baina kontuz! Gehiegi jolastuz gero, txarra da, begiak asko nekatzten direlako.

Jolasterakoan *memory stick*-a erabili behar duzu, datuak gordetzeko. Bateriak % 100 kargatzen baditugu, 5h eta 15 min iraun dezake, ne-rean, behintzat...



Gainera, kamararekin argazkiak eta bideoak atera daitezke.

FIFA 11 eta *Tony*

How, s... zaizkit jokorik dibertigarrienak. Hala ere, gaur egun joko pila bat daude.

NDSa antzekoa da eta bien arteko desberdintasunak hauek dira: PSPak NDSa baino gehiago irauten du; NDSko jokoak oso politak dira: *Mario*....

Orain Eguberriak datoz, Olentzero dator, eta aukera daukazu eskatzeko. Hala ere, gure benetako lagunak egunero gure ondoan daudenak dira!

**Gure benetako
lagunak egunero
gure ondoan
daudenak dira**

bodegas ERRASTI, S. L.



Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardandegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

IÑAKI ORBEGOZO



HIRIGUNEKO ETA HERRIZ KANPOKO ZERBITZUA
ENPRESA ZERBITZUA
MEZULARITZA

TAXISERVICE
608 827 826
inik@iniktao.es www.iniktao.es

**Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR**

943 83 05 37 / 943 83 27 47

» HANDIK ETA HEMENDIK



“Pentsatu nahi dut alkatea ez dela hotza izango herriaren erantzunarenganako; gure arteko hitzarmenaren kulturak bere inertzia izango ahal du oraingoan ere!”

I. Beraza, Ikastolako zuzendaria. *Gipuzkoako Hitza* (2010-XI-19)

“Bizitzan ez zait hainbeste gustatzen malenkoniarako joera, baina estetikoki badirudi hori ateratzen zaidala, eta harpak ere horretara naramala, edo ahotsak agian”

Olatz Zugasti, Kantaria. *Noticias de Gipuzkoa* (2010-XI-20)

» OSPAKIZUNA



Gotzon Larrañaga Salsamendi

Azaroaren 2an, 15:25ean jaio zen Gotzon Larrañaga Salsamendi, Marijo Salsamendi eta Angel Larrañagaren etxeko errege berria. 3.450 gr pisatu zituen arren, gose jaio omen zen, segituan hasi baitzen janari bila. Gaur ere, hala egiten omen du: jan eta lo, potolo. Eguraldiak ez die lagundu kalera ateratzeko eta, hondartzan bizi direnez, nahikoa komeria ibili dituzte atertu arte zain.

» ZORIONAK!

Txakur kakak poltsetan

Orioko Udalaren ekimenez, propio txakur-
rren kakak jasotzeko poltsak jarri dituzte herriko lau lekutan: hondartzan, errio aldean; futbol zelaiaren alboan, paseo aldean; Dike parkearen hasieran, Ibai-On-doren bukaeran; eta Goiko Kalen, Antxiola kaleko zelai txikian, dorrearen alboan.

Poltsak bukatzen direnean berriz jartzeaz ere arduratu-ko da Udala.

Hortaz, poltsak eskura jarrita, horiek erabiltzea besterik ez zaie geratzen txakur-
rren jabeei. Eta gorotzak jaso ondoren, zakarrontzira botatzea poltsa. Ea txakur kaka-
ren arazoaren konponbidea den, eta ez dugun horrelako kezarik berriz lerrootara ekarri beharrik.

Nahikari
HAUR DENDA

Arantzale Kalea, 35
28100 - Orio
Telf. 943 83 36 30
www.nahikari.es

AHOLKULARITZA
Fiscalia, laborala, kontablea

Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

iñaki argazkiak
caperochipi

ezkontzeko asmorik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak
659378751
ikapero@ikapero.com

HARROBI ANAIAK
IGELTSARITZA OROKORREAN

Gremioen koordinazioa
GAIZKA: 687 80 24 93
EKAITZ: 635 73 10 79

Profesionalak - Azkarrak - Merkeak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
harrobianaiaak@hotmail.com

jatetxea
logelak
gazteategi

Elkano auzoa
943 13 16 06

UTZIAR
kirolak

Tel. 943 83 31 03

Zulo handia egin zen kofradia parean

Duela 25 urte 1985eko abendua

Susto ederra hartu zuten abenduaren 9an, goizean goiz, Orioko moilatik barrena pasean edota kaiko ur azpiak garbitzeko eta sakontzeko -bapore handiei leku egiteko- lanei begira ari ziren herritarrek. Izan ere, goizeko zortziak aldera, dragatuaren zain zegoen Dumper kamioi bat Kofradia- ren parean, ustekabean lurra beheara etorri eta 6 metro zabal eta 3 metro luzeko zulora erori zen. Itxura guztien arabera, Eusko Jaurlaritzaren zuzendaritzapean egiten ari ziren garbiketaren horien ondorioz eman zuen azpiko zimenduak.

Zorionez, gidaria ez zegoen bertan eta ez zuen inork minik hartu. Garabi handi bate-

pean zuten sutea eta garrakez ziren herriraino iritsi. Sua piztu zen mendi saila, ordea, kiskalita geratu zen.

Sanikolasak eta musika

Jaien atarian, San Nikolas jaien aurrerapen gisa kultur ekitaldiak antolatu ziren herrian: *Historia marítima vasca y modelismo naval* hitzaldia eman zuen Gipuzkoako Ozeanografi Elkarteko ikerketa eta itsas-modelismo taldeko Migel Laburuk azaroaren 30ean, koadrilen egunean; Orioko Arraun Elkarteko zuzendaritza berria aurkeztu zuten egun berean: Iñaki Sarasua presidente eta J. J. Lertxundi, Koldo Olariaga, Joxemari Olasagasti, Patxi Sarasua eta J. Anjel Garmendia bokal; abenduaren 4an, berri- z, Markos Tolosak eskainitako *Adimen osasuna* hitzaldia izan zen Emakume taldeak antolatuta.

Abenduaren 6an hasi eta hiru eguneko festak izan ziren Orion, herriko zaindaria San Nikolasen oroimenez. Lehen aldiz, San Nikolas futbito maratokia izan zen jai haietan: hilaren 6ko 19:00etan hasita, goizeko 03:00ak arte izan ziren partidak. Abenduaren 7an jarraitu zuten jokoa: 06:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 03:00etara.

Bestalde, Rockjaialdi aparta izan zen RIP, Baldin Bada, Odio Social, Ximaurra eta

BAP taldeekin; hiru urtez prestatzen aritu ondoren, emanaldia eskaini zuen parrokiako abesbatzak elizan; eta, berrikuntzekin bukatzeko, bikotekako bazkari-lehiaketa izan zen.

Gainerakoan, paperezko globoen eta japoniar bonben jaurtiketa, entzierroa, sokamuturra, estropada, ziklo krosa... izan ziren.

Lehen aldiz, futbito maratokia jokatu zen San Nikolas festetan eta bi egun pasa zituzten kirolariek jokoa

Errenteriako Xenpelar Sari-ko txapela jantzi zuen Jon Sarasuak. Berea izan zen saioko bertsorik onena ere

Kulturaz blai

Bestelako kultur ekintzak ere izan ziren gurean, musika kontuei lotutakoak batez ere: Errenteriako Xenpelar Sari-ko txapela jantzi zuen Jon Sarasuak abenduaren 8an. Txapelaz gain, 30.000 pezeta eta trofeoa jaso zituen aurrena izateagatik eta bigarren trofeo bat ere hartu zuen, berea izan baitzen txapelketako bertsorik onena ere.

Elgoibarko parrokiako abesbatzak kantaldia eskaini zuen abenduaren 14an; Santa Zezilia abesbatzak, hilaren 21ean; eta Errenteriako Oinarririkorua, abenduaren 28an.

(1985)

kin atera behar izan zuten kamioia zulotik.

Sutea

Ezustekoekin jarraituz, sutea izan zen Orion abenduaren 2an. Eguerdiko ordubata aldera piztu ziren txinpartak Txanka inguruan, sastraka eta pinuz betetako lur eremu batean. Suhiltzaileen lanari eta suebakiei esker, arratsaldetako zazpietarako kontrol-

» JAIOTAKOAK

- Julene Iturriotz Muriana, Orion, azaroaren 17an.
- Gotzon Larrañaga Salsamendi, Orion, azaroaren 2an.


» EZKONDUTAKOAK

- Garikoitz Barrio Pascual eta Izaskun Arizeta Garmendia, Aian, azaroaren 27an.
- Ana Aldalur Eizagirre eta Patxi Gurrutxaga Agirre, Aian, azaroaren 20an.
- Migel Angel Miera Garcia eta Monica Recio Arroyo, Orion, azaroaren 16an.

» HILDAKOAK

- Miren Aizpurua Telleria, Orion, azaroaren 29an. 82 urte.
- Jose Migel Sagarna Eizagirre, Orion, azaroaren 21ean. 59 urte.

.....
 :: Eskela edo
 :: urteurreneko
 :: gogoangarria
 :: Karkaran jarri nahi
 :: baduzu, deitu gure
 :: telefonora:
 :: **943 83 15 27**



Ille apaindegia
MARIJO
 Neska eta mutilentzat

 Eusko Gudari, 8 - bajo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

ARISTERRAZU
 jatebxea

 Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

Allianz 
 Marigre Zaldua
 aseguru agentea
 Ibai Ondo, 10 behe-oina
 telefonoa: 943 13 47 60
 faxa: 943 83 57 52
 e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

Kinkladenda- Ume arropa
argine
 www.lasonet.com/argine
 Tel. 943 13 48 89
 75eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARREN TXARTELAREKIN



KARKARA

“Bertako produktuez elikatzeko bitartekoak jarriko ditugu Orion”

Pedro Alberdi

EHNEko teknikaria

Jendartean kontsumo-talde gisa ezagutzen den talde bat Orion sortu nahian, hitzaldia eskainiko du Pedro Alberdi nekazaritza sindikatuko teknikariak abenduaren 9an, kultur etxean, 19:00etan

LOREBERASALUZE

Bertako eta garaian garaiko produktuen eskaria gero eta handiagoa da gaur egun. Eskariari erantzun dion baserritarra eta hark ekoiztutako elikagaien hartzaileak elkartzeko eta elkarren arteko jardunari forma emateko lanetan dabil Pedro Alberdi azkenaldian.

Zerkekarri zaitu Oriora, Pedro?

Duela astebete pasatxo edo, Orioko gazte batek hots egin zigun, nekazaritza ikastaro bat egin eta baratzea martxan jarri nahi duela-eta, laguntza eta aholku eske. Ezin aproposagoa iruditu zaigun

Orion kontsumo taldea –Basherri taldea deitzen diogu guk; baserriaren eta herriaren arteko elkarlanetik sortutako hitza –eratzeko. Horretara dator hilaren 9ko hitzaldia.

Zer jorratuko duzu saio horretan?

Hasteko, nekazaritzaren egungo egoera nolakoa den azalduko dut: baserriak nola dauden, zergatik iritsi garen egoera horretara, elikaduran izan duen eragina... Izan ere, gure ustez, baserria indarra galtzen joan den heinean, elikaduraren kalitateak behera egin du nabarmen. Kanpotik etorritakoa jaten dugu, jakin gabe non, nola, zein baldintzatan ekoitzi

den. Berebiziko garrantzia ematen diot filosofia hori ulertzeari. Eta hor kokatuko dut Basherri taldea, egoera horren erantzun gisa.

Basherriren dinamika azalduko dut gero. Gazte horrek ekoiztutako barazki eta abarrei *erosleak* bilatzea da funtsa.

“Herriaren eskura jarri nahi ditugu Orioko gazte batek ekoiztutako baserriko garaian garaiko produktuak, sorokoak batez ere”

“Kontsumo talde (Basherri talde guretzat) horren partaide izan nahi duenak, abenduaren 9ko hitzaldira agertu besterik ez du”

Motzean, dinamika horren ezaugarriak garrantzitsuenak azalduko al zenizkiguke?

Otarraren sistemarekin funtzionatzen du: soroa adibide hartuta –baina baserriko edozein produktu izan liteke: ogia, gazta... – astean behin, Basherriko familia bakoitzarentzako otar bana prestatuko du baserritarrak, baratzeak eman dizkion jakiekin osatua eta familiaren tamainaren arabera. Ordainetan, familia bakoitzak aurrez zehaztutako kuota, astero berdina, ordainduko dio baserritarrari. Normalean, itxiak dira xestok; alegia, ez du norberak aukeratu zenbat azenario eta porru jasoko dituen, sorokak emandakoaren arabera baita. Bide batez, gainera, jaten ikasteko bitartekari ere izango da Basherri, kultura hori ere galduta baita ukagu.

Zenbateko taldeak izaten dira?

Baratzearen kasuan, bas(h)erritar bakoitzak 25 bat familiaren elikadura hartzen du bere gain. Hala ere, formula posible asko daude Basherri taldearen baitan: hasteko, zenbat eta produktu gehiago eskaini, aberatsagoa izango da bai baserritarrarentzat eta baita eroslearentzat ere. Soroaz gain, oiloak eta ogia izanez gero, hobe. Batetik bestera taldeak alda litezke: familia gehiagorentzako arrautzak egon litezke; baina agian, barazkiak ez.

Hitzaldira joan ezin duen, eta Basherri taldearen partaide izan nahi lukeen baten bat balego, nora jo beharko luke?

Nirekin harremanetan jartzeko hainbat bide emango dizkiot: alde batetik, 615 76 70 86 telefono zenbakira deizake; basherriak@gmail.com helbide elektronikora ere idatz dezake; eta informazio gehiago nahi izanez gero, www.basherri.wordpress.com helbidean izango nau, erantzuteko prest.

ZERBITZUAK

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokairua

■ Pisukide bila nabil, Orioko Abeslari kaleko etxe batean bizitzeko. Tf: 691 31 22 40 (Jon).
 ■ Orion alokatzeko pisu bila nabil, urte osorako. Dei ezazu 676 28 58 88 edo lan orduetan, 943 83 15 18 telefono zenbakietara.
 ■ Etxe txiki bat emango nuke alokairuan Aian, kaskotik 50 metrora. 635 71 88 38

Salgai

■ Garajea salgai Baxoalde kalean. 16,12 metro koadro. 36.000 euro. Tf: 677 93 24 28/637 30 67 95.
 ■ Garaje bikoitza salgai Erribera kalean. 38 metro koadro. 63.000 euro. Tf: 636 38 66 63/607 58 08 41.

■ Duplexa salgai Arrantzale kalean. Tf: 670 90 04 23.
 ■ Etxea salgai Eusko Gudarín. Handia eta goxoa da eta ganbara ederra ere badu. Tf: 639 20 27 64.

Galdutakoak

■ Urtebeteko haurren txaleko urdin argia galdu zitzaidan azaroaren 8ko goizean. Bateren batek jaso badu, dei diezadala, arren 677 84 33 23 telefono zenbakira.

Lan eskaintzak

■ Desbrozadorekin belardi edota zelaietako belarra mozten dut. Prezio oneko zerbitzu txukuna. Tf: 697 750 196.
 ■ LH eta DBHko lehen zikloko ikasleei klase parti-

kullarrak emateko prest dago batxilergo ikaslea. Interesatuak deitu 600 39 02 38ra (Goiuri). Tf: 608 16 49 71 (Amaia)
 ■ Ingeniari teknikoak haur eta gaztetxoentzat klase partikularrak eskaintzen ditu. 608 16 49 71 (Amaia).
 ■ Orion bizi den emakume marokoarrak lan egin nahiko luke etxeak edo lokalak garbitzen, edade-tuak zaintzen edo jatetxe edo taberna bateko sukaldetan laguntzen. Garbiketaren lanetan eskarmentua badu. Tf: 667 91 53 98.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
19	02:01 eta 14:25	08:14 eta 20:37	
04	02:50 eta 15:14	09:03 eta 21:25	
05	03:35 eta 15:58	09:46 eta 22:08	
06	04:15 eta 16:39	10:26 eta 22:48	
07	04:54 eta 17:19	11:05 eta 23:27	
08	05:31 eta 17:58	11:42 eta	
09	06:07 eta 18:36	00:05 eta 12:19	
10	06:43 eta 19:15	00:43 eta 12:56	
11	07:20 eta 19:56	00:51 eta 13:34	
12	08:00 eta 20:44	01:32 eta 14:17	
13	08:48 eta 21:42	02:21 eta 15:39	
14	09:53 eta 22:54	03:23 eta 16:48	
15	11:15 eta	05:11 eta 16:07	
16	00:07 eta 12:31	06:24 eta 18:46	
17	01:05 eta 13:28	07:19 eta 19:39	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

NOIZ ZEIN HILABETE

- 3an, Mutiozabal.
- 4an eta 5ean, Zulaika.
- 6an, Gallo.
- 7an, Azaldegia.
- 8an, Etxeberria.
- 9an, Mutiozabal.
- 10ean, Zulaika.
- 11n eta 12an, Iriarte.
- 13an, Etxeberria.
- 14an, Gallo.
- 15ean, Azaldegia.
- 16an, Zulaika.
- 17an, Iriarte.
- 18an eta 23ra, Lasas.
- 24an, Etxeberria.

Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoakalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasas: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
G. Artifiano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:11	6:41	7:11	7:41	8:11	8:41	9:11	10:11	11:11	12:11	12:41	13:11	13:41	14:11	14:41	15:11	15:41	16:11	16:41	17:11	17:41	18:11	18:41	19:11	19:41	20:11	21:11	22:11
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:09	21:09	22:09	22:38
Aia-Orio	6:15	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:15	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	16:45	17:15	17:45	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	21:15	22:15	22:45
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20	

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
Orio	7:25	8:15	8:45	9:15	9:45	10:15	11:15	12:15	12:45	13:15	13:45	14:15	14:45	15:15	15:45	16:15	17:15	18:15	18:45	19:15	19:45	20:15	20:50	21:35	22:50
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25		10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25		16:25	17:25	18:25		19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45		10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45		16:45	17:45	18:45		19:45	20:45	21:15
Orio	6:55	7:25	7:55	8:25	8:55	9:30	9:55	10:30	10:55	11:55	12:55	13:30	13:55	14:30	14:55	15:30	15:55	16:30	16:55	17:55	18:55	19:30	19:55	20:55	21:25
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
Orio	8:35	9:35	10:35	11:35	12:35	13:35	14:35	15:35	16:35	17:35	18:35	19:35	20:35	21:35	22:35	23:05
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	22:45	23:15

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
Orio	6:55	7:55	8:55	9:55	10:55	11:55	12:55	13:55	14:55	15:55	16:55	17:55	18:55	19:55	20:55	21:55
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



» AGENDA



Oskorriren emanaldia

Abenduaren 17an, larunbatarekin, emanaldia eskainiko du Orion Oskorri taldeak, alboan Danbolin Musika Eskolako banda eta Donostiako Kontserbatoriokoa dituela. 18:00etan izango da kontzertua, Karela kiroldegian. 8 euro ordaindu beharko dituzte helduek hiru taldeen musikaz gozatzeko eta 5 euro haurrek. Txartelak, berriz, kiroldegian bertan jarriko dituzte salgai aldezturik.

Amets Arzalluz, Hodei Iruretagoiena, Sebastian Lizaso, Julio Soto, Ander Sorozabal, Jokin Uranga, Jone Uria eta Rosi Lazkano oriotarra. 22:00etan, Zarauzko Putzuzulo gaztetxean. Sarrerak salgai: egunean bertan, 20:00etatik aurrera.

■ Abenduaren 17an, Erregeen danborradarako izen ematea. 19:00etan, Orioko Herri Ikastolako pergolan.

Orio

Musika

- Abenduaren 17an, Giranice eta Mobydick taldeen kontzertua, 22:30ean, Zarauzko Putzuzulo gaztetxean.
- Abenduaren 19an, Salatxo abesbatzaren Gabonetako kontzertua, 12:45ean, San Nikolas elizan.

Hitzaldiak

- Abenduaren 9an, Basherrri taldeei buruzko hitzaldia. Hizlaria: EHNE sindikatuko Pedro Alberdi. 19:00etan, kultur etxean.
- Abenduaren 15ean, Maria Maestra haurreskolak antolatu, loturari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Eider Salegi. 19:00etan, kultur etxean.
- Abenduaren 16an, Orioko baserri buruzko hitzaldia

eta erakusketaren inaugurazioa. Hizlaria: Zehazten zerbitzu kulturalak taldeko ordezkari Xabier Alberdi. 18:30ean, kultur etxean.

Traste zaharrak

- Abenduaren 15ean, altzari zaharrak jasoko dituzte. Bezperan utzi behar dira edukiontzien ondoan.

Irteerak

- Abenduaren 19an, Talai Mendi mendi elkarteak antolatutako babarrun jana, Leitzaran inguruan.

Kirola

- Areto futbolearen, abenduaren 4an, nazional B kategorian, Orioko Tabernak-Donostiako zuzenbide.
- Futbolearen, abenduaren 11-12 asteburuan, preferente kategorian: Lagun Onak-Orio; ju-

benilen lehenengo kategorian: Orio-Lengokoak; kadeten lehenengo kategorian: Orio-Urola; infantilen ohorezko kopan: Orio-Lagun Onak; alebinen kategorian: Kostkas Miren Bihotza-Orio; ■ Futbolearen, abenduaren 4an, Emakumezkoen jubenilen kategorian: Urola-Orio.

Bideo emanaldiak

- Abenduaren 19an, *Barriola San Adriango azeria* bideo emanaldia. Doan. 17:00etan, kultur etxean.
- Abenduaren 19an, *Izarren argia* bideo emanaldia. Prezioa: 3 euro. 19:00etan, kultur etxean.

Bestelakoak

- Abenduaren 10ean, Ziritik eta Zorotik koplak txapelketa. Parte hartzaileak: Miren Amuriza, Miren Artetxe,

Aia

Podologia

- Abenduaren 11n. Ordua hartzeko udaletxean eman behar da izena. Tf: 943131144.

Silo-bolak

- Abenduaren 14an. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu. Telefono zenbakia: 943816500. Bestela, Igorrekina, zerbitzuaren arduradunarekin, hitzegina: 660049751.

Erromeria

- Abenduaren 12an, Santa Luzia bezperako erromeria, Astiazaran anaiak eta Leire trikitilariekin. 18:30ean, Andatzako Aristerrazun.



PILATES

POSTURA



Horrelakorik ez duzu inoiz ezagutu

LESIOEN AURREZAINZA

Adin guzietarako

FISIOTERAPEUTEK ZUZENDUTA

Erditze aurre eta ondorengo Pilatesa



Kurben zuzenketa

ESKOLIOSIA

Postura berreziketa

ARAZO POSTURALAK

Belaunen zuzenketa

 **sinergia** investigación fisioterapia
Ibai ondo 1. - ORIO / Tlf. 943 13 05 77
www.sinergia-web.com



AZKEN TEKNOLOGIA !!

ARTROSIA

Goi mailako kirolariak

BEREHALAKO EMAITZAK

Aspaldiko min eta aintzizeak



Kirol-lesioak

OSTEOPATIA

Arnas-fisioterapia

DRAINATZE LINFATIKOA

Eskuzko Terapia

TECAR

FISIOTERAPIA